

Langabezia-tasa % 11ra jaitsi da eta biztanleria okupatua hazi egin da, 13.800 gehiago dira 2017ko bigarren hiruhilekoan, Euskal AEn


Langabezia-tasak behera egin du, azken urtean, ehuneko hiru puntu

Euskal AEko lan-merkatuaren gaineko 2017ko bigarren hiruhilekoko datuen arabera, 923.200 dira okupatuak, alegia, 13.800 pertsona okupatu gehiago daude, aurreko hiruhilekoaren aldean (+% 1,5), Eustaten datuen arabera. Bestalde, Euskal AEko langabezia-tasa % 11koa da, 2017ko lehen hiruhilekoan baino ehuneko 0,4 puntu gutxiago.

Biztanleria okupatuaren eta langabearen bilakaeraren emaitza gisa, jarduera-tasa % 56,5ekoa da 2017ko bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko bost hamarren gehiago.

Generoa dela eta, okupazioaren gorakada handiagoa da emakumeetan; 8.800 okupatu gehiago aurreko hiruhilekoan baino; gizonetan, 5.100 okupatu gehiago dira. Lurraldeen arabera, hiruretan egon dira hazkuntzak. Okupazioaren hazkuntza gehien izan duen lurraldea Bizkaia da, 7.600 okupatu gehiago ditu; gero, Gipuzkoa, 5.300 okupatu gehiago; eta, Araban, 1.000 gehiago.

Euskal AEko 16-64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasa, sexuaren eta hiruhilekoaren arabera (%)



Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta

Jarduera-sektore guztiek berreskuratu dituzte okupatuak, eraikuntzak izan ezik

Euskal AEko biztanleria okupatuak gora egin du zerbitzuen sektorean, 6.900 okupatu gehiago dira; industrian, 6.400 gehiago, eta, lehen sektorean, 700 gehiago. Eraikuntzan, ordea, okupatuen kopuruak behera egin du, 200 pertsona gutxiago dira.

Okupazio-tasak, 16 eta 64 urte bitarteko pertsona okupatuen ehunekotan kalkulaturik adin horien guztizkoaren gainean, 1,1 egin du gora, aurreko hiruhilekoaren aldean, eta % 66,9an kokatzen da. Tasa hori % 70,1era iritsi da gizonetan, eta % 63,8koa da emakumeetan.

Lurralde historikoen arabera, okupazio-tasa altuena Gipuzkoakoa da, % 68,7koa, eta aurreko hiruhilekoaren aldean ehuneko 1,1 puntu gehiago. Gero, Arabakoa, % 67koa, aurreko hiruhilekoaren aldean 7 hamarren gehiago. Eta, azkenik, Bizkaikoa; bertan, okupazio-tasak 1,2 puntu egin du gora (% 65,8).

Gora egin dute pertsona aktibo guztiak okupatuta dituzten etxeek eta behera, kide aktibo guztiak langabezian dituztenek

2017ko bigarren hiruhilekoan, Euskal AEn 877.800 etxe inguru daudela kalkulatu da, eta, horietatik, heren batek ez du pertsona bat ere aktibo. Etxeen erdian baino pixka bat gehiago, pertsona aktibo guztiak okupatuta daude, aurreko hiruhilekoan baino 11.100 familia gehiago. Gainera, 39.000 etxek dituzte pertsona aktibo guztiak langabezian, aurreko hiruhilekoan baino 800 etxe gutxiagok.

Langabezia-tasa osoak % 11 egin du behera, aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren gutxiago

Euskal AEko langabe-kopurua, alegia, enplegua bilatzen ari den, bilaketarako kudeaketa aktiboak egiten dituen eta, gainera, lan egiteko disponibilitatea duen pertsona-kopurua, urteko bigarren hiruhilekoan, 113.900 dela kalkulatu da, aurreko hiruhilekoan baino 3.100 pertsona gutxiago. Emakume langabeen kolektiboa 54.400 pertsona dira; 6.900 pertsonatan egin du behera, eta, gizon langabeenak 3.800 egin du gora, guztira 59.500era arte hiruhilekoan.

2017ko bigarren hiruhilekoko datuen arabera, langabezia-tasa % 11koa da, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 0,4 puntu gutxiago. Gizonezkoen langabezia-tasak % 11ra egin du gora (ehuneko 0,6 puntu gehiago), eta emakumezkoenak 1,5 puntu egin du behera, eta % 11koa da, halaber. Gazteen langabezia-tasak jarraitzen du altuena izaten, % 19,1ekoa, nahiz eta ehuneko lau puntu baino gehiagoko (4,1 puntu gutxiago) beherakada izan duen; horrela, bada, langabeziak 16 eta 24 urte bitarteko 8.200 gazte aktibotan du eragina.

Lurralde historikoen arabera, langabe-kopuruan egon den beherakada handiena Bizkaian izan da (-2.300 pertsona); bertan, langabezia-tasa % 12,2koa da, aurreko hiruhilekoan baino puntu erdi gutxiago. Gipuzkoan -29.700 langabe ditu-, langabeziak behera egin du, eta 1.300 pertsona gutxiago dira; langabezia-tasak ere behera egin du puntu erdi eta % 8,8koa da. Araban, langabeziak gora egin du, 600 pertsona gehiago dira aurreko hiruhilekoaren aldean, eta langabezia-tasak hiru hamarren egin du gora (% 11,6).

EUROSTATen –Europar Batasuneko Estatistikako Bulegoa– datuen arabera, 2017ko maiatzean, Europar Batasuna-28ko langabezia-tasa % 7,8koa izan zen eta, Espainiakoa, % 17,7koa.

Azken urtean, okupatuak kopuruak gora egin du eta langabeenak, behera

Euskal AEko biztanleria okupatuak gora egin du 2016ko bigarren hiruhilekoaren aldean, 19.600 pertsona gehiago dira, % 2,2 gehiago; hazkuntza hori emakumeetan 10.000 okupatu gehiagokoa izan da eta, gizonetan, 9.600 gehiagokoa.

Langabezia-tasak ehuneko hiru puntu egin ditu behera (% 14tik % 11ra); beraz, 32.900 pertsonak utzi diote Euskal AEn langabezia-egoeran egoteari, 2016ko bigarren hiruhilekoko datuen aldean.

Hiruhilekoko batez besteko afiliatuak % 98,3 okupatuta dago, NLEren irizpideen arabera.

Euskal AEn hiruhilekoan, batez beste, 852.100 afiliatu daudela zenbatesten da, inkesta garaian Euskal AEko biztanle eta Gizarte Segurantzako afiliatu. Horietatik, % 98,3 okupatuak dira Nazioarteko Lan Erakundearen (NLE) irizpideen arabera, zeinak baitira BJAK darabiltzanak; 837.900 lagun.

BJAren NLE okupatuak artean, % 8,1 ez dira Gizarte Segurantzako afiliatu (74.700), ez baitaude Euskal AEn kokatutako enpreetan edo funtzionarioen mutualitate publikoetakoak direlako edo beste egoera batzuetan daudelako.

Langabeen % 28,6 ez dago jasota Lanbiden erregistratutako langabe gisa

Euskal AEn zenbatesten da 118.300 langabe daudela Lanbiden erregistratuta hiruhilekoan, batez beste, alegia, Euskal AEn bizi eta inkesta egin den unean langabeziako kategoria kalifikaturen batean daudela Lanbiden erregistratuta. Horietatik, % 67,3 langabea da, NLEren definizioaren arabera (79.600 langabe). BJAren NLE langabeen artean, % 28,6 ez dago langabe moduan erregistratuta Lanbiden (32.600 pertsona), baina beste kategoria batzuetan egon daiteke.

Euskal AEn biztanleria jardueraren arabera (1). 2017/II

	2017/II	2017/I	Aldakuntza, aurreko hiru hilabetearen aldean	
	Milakoak	Milakoak	Milakoak	%
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.836,0	1.833,9	+2,1	0,1
AKTIBOAK	1.037,1	1.026,3	+10,8	+1,1
Gizonak	543,1	534,2	+8,9	+1,7
Emakumeak	494,0	492,1	+1,9	+0,4
Araba/Álava	157,0	155,5	+1,5	+1,0
Bizkaia	542,4	537,1	+5,3	+1,0
Gipuzkoa	337,7	333,8	+3,9	+1,2
BIZTANLERIA LANDUNA	923,2	909,4	+13,8	+1,5
Gizonak	483,6	478,5	+5,1	+1,1
Emakumeak	439,6	430,8	+8,8	+2,0
Araba/Álava	138,8	137,8	+1,0	+0,7
Bizkaia	476,3	468,7	+7,6	+1,6
Gipuzkoa	308,1	302,8	+5,3	+1,8
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	11,0	10,3	+0,7	+6,8
Industria	197,5	191,1	+6,4	+3,3
Eraikuntza	47,4	47,6	-0,2	-0,4
Zerbitzuak	667,3	660,4	+6,9	+1,0
Soldatakoak	736,8	724,1	+12,7	+1,8
- Kontratu mugagabea dutenak	517,7	521,5	-3,8	-0,7
- Aldi baterako kontratuarekin eta kontraturik gabe	219,1	202,7	+16,4	+8,1
Ez soldatakoak	186,4	185,2	+1,2	+0,6
LANGABEAK	113,9	117,0	-3,1	-2,6
Gizonak	59,5	55,7	+3,8	+6,8
Emakumeak	54,4	61,3	-6,9	-11,3
16 - 24	8,2	9,6	-1,4	-14,6
25 - 44	58,1	58,5	-0,4	-0,7
45 eta gehiago	47,7	48,9	-1,2	-2,5
Araba/Álava	18,2	17,6	+0,6	+3,4
Bizkaia	66,1	68,4	-2,3	-3,4
Gipuzkoa	29,7	31,0	-1,3	-4,2
EZ-AKTIBOAK	798,9	807,6	-8,7	-1,1
ETXEBIZITZAK	877,8	877,5	+0,3	+0,0
Aktibo 1 edo gehiagoko etxebizitzak	599,5	593,2	+6,3	+1,1
- Guztiak okupatuak	512,1	501,0	+11,1	+2,2
- Guztiak langabeak	39,0	39,8	-0,8	-2,0
Aktiborik gabeko etxebizitzak	278,2	284,4	-6,2	-2,2

(1) Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ikuskatu dira urte horretako urtarilaren oinarri 1ekiko populazioaren gaurkotzearekin

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta

Biztanleria jardueraren arabera. Tasa nagusiak (1). 2017/II

	2017/II	2017/I	Aldakuntza, aurreko hiru hilekoaren aldean (e.p. *)
JARDUERA-TASA	56,5	56,0	+0,5
Gizonak	61,4	60,5	+0,9
Emakumeak	51,9	51,8	+0,1
Araba/Álava	58,0	57,5	+0,5
Bizkaia	56,0	55,5	+0,5
Gipuzkoa	56,5	56,0	+0,5
BETETZE-TASA (16-64 urte bitarte)	66,9	65,8	+1,1
Gizonak	70,1	69,3	+0,8
Emakumeak	63,8	62,4	+1,4
Araba/Álava	67,0	66,3	+0,7
Bizkaia	65,8	64,6	+1,2
Gipuzkoa	68,7	67,6	+1,1
LANGABEZIA TASA	11,0	11,4	-0,4
Gizonak	11,0	10,4	+0,6
Emakumeak	11,0	12,5	-1,5
16 - 24	19,1	23,2	-4,1
25 - 44	11,5	11,6	-0,1
45 eta gehiago	9,7	10,2	-0,5
Araba/Álava	11,6	11,3	+0,3
Bizkaia	12,2	12,7	-0,5
Gipuzkoa	8,8	9,3	-0,5
EZ-AKTIBOTASUN TASA	43,5	44,0	-0,5

*e.p. = Aldea, ehunekotan

(1) Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ikuskatu dira urte horretako urtarilaren oinarri 1ekiko populazioaren gaurkotzearekin

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62